

UDAL ADMINISTRAZIOA

7

ADMINISTRACIÓN MUNICIPAL

ZARAUZKO UDALA

*Iragarkia*

2015eko martxoaren 13an egindako bilkuran, Zarauzko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki hau hartu zuen:

2014ko martxoaren 28an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak hasierako onespina eman zion Gesalaga Precocinados SA sozietateak abiarazi zuen Abendaño birpartzelazio proiektua aldatzeko dokumentua, 14, 15 eta 33 zenbakiko partzelei dagokiena.

Espedientea jendaurrean egon zen epean ez zen alegaziorik aurkeztu.

2015eko otsailean, Gesalaga Precocinados SA sozietateak behin betiko onespenerako dokumentua aurkeztu zuen.

Hirigintza eta Ingurumeneko udal zerbitzuak informatu du dokumentuak hasierako onespenean jarritako baldintzak bete dituela.

Aurrez espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, eta Hirigintza arloko zinegotziak hala proposatuta, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

*Lehenengoa.* Behin betiko onespina ematea Gesalaga Precocinados SA sozietateak abiarazi duen Abendaño birpartzelazio proiektua aldatzeko dokumentua, 14, 15 eta 33 zenbakiko partzelei dagokiena.

Onartu dena da Josu Alonso abokatuak eta Josu Aranguren industria ingeniariak sinatu duten testu bategina (2015eko otsaileko dokumentua).

*Bigarrena.* Akordio hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea. Halaber, birpartzelazio proiektuan agertzen diren ondasun-eskubideen titular guztiei jakinaraziko zaie.

*Hirugarrena.* Alkateak ahalmena izango du, behin akordioa administrazio-bidean irmo denean, birpartzelazioa Jabetza Erregistroan inskribatzeko beharrezko diren izapideak bete zezake; eta hori, hirigintza-egintzak inskribatzeari buruzko arautegian aurreikusitakoaren arabera. Halaber, hala behar izanez gero, proiektuan egon daitezkeen akats material edo egitezkoak zuzendu ahal izango ditu.

Jendeak oro har jakin dezan argitara ematen dena ondoko argibidearekin: Administrazio-bideari amaiera ematen dion eta behin betikoa den erabaki honen aurka jarraian agertzen diren errekurtsioak aurkeztu ahal izango dira:

Berraztertze errekurtsoa: aukerazkoa: erabakia hartu duen organoari, hilabeteko epean, akordioa argitaratzen denetik kontatzen hasita. Errekurtsoa aurkeztu eta hilabete igarota ebazpena jakinarazi ez bada, orduan errekurtsoa onartu ez dela ulertuko da. Edota, zuzenean,

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa: Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, akordioa argitaratzen denetik kontatzen hasita; edota, administrazioaren isilunearen ondorioz ezetsi bada, sei hilabeteko epean. Hori guztia, egoki deritzozun beste edozein errekurtso jartzeari utzi gabe.

Zarauz, 2015eko martxoaren 17a.—Alkatea. (2552)

AYUNTAMIENTO DE ZARAUZ

*Anuncio*

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Zarautz, en sesión celebrada el día 13 de marzo de 2015 adoptó el siguiente acuerdo:

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 28 de marzo de 2014, aprobó inicialmente el documento de modificación del proyecto de reparcelación de Abendaño, relativo a las parcelas 14, 15 y 33 promovido por la sociedad Gesalaga Precocinados SA.

En el período de exposición pública del expediente no se presentaron alegaciones.

En febrero de 2015 la sociedad Gesalaga Precocinados SA presentó el documento para la aprobación definitiva.

El servicio municipal de Urbanismo, y Medio Ambiente ha informado que el documento da cumplimiento a las condiciones de la aprobación inicial.

Previo análisis y deliberación del expediente, y a propuesta del concejal del área de Urbanismo, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

ACUERDA

*Primero.* Aprobar definitivamente el documento de modificación del proyecto de reparcelación de Abendaño, relativo a las parcelas 14, 15 y 33, promovido por la sociedad Gesalaga Precocinados SA.

El proyecto aprobado es el texto refundido suscrito por el abogado Josu Alondo y por el ingeniero industrial Josu Aranguren (documento de febrero de 2015).

*Segundo.* Publicar el presente acuerdo en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa. Igualmente se notificará a los titulares de bienes y derechos que figuran en el proyecto de reparcelación.

*Tercero.* La Alcaldía queda facultada para que una vez sea firme el acuerdo en vía administrativa, proceda a realizar los trámites precisos para su inscripción en el Registro de la Propiedad, de conformidad con lo previsto en la normativa de inscripción de actos de naturaleza urbanística. Igualmente podrá adoptar los acuerdos que sean procedentes para la rectificación de posibles errores materiales o de hecho contenidos en el proyecto.

Lo que se publica para general conocimiento y efectos, con indicación de que contra la presente resolución, que pone fin a la vía administrativa, se podrán interponer los siguientes recursos:

Recurso de reposición, con carácter potestativo, ante el mismo órgano que ha dictado el acto, en el plazo de un mes, a contar desde la publicación del acuerdo. El recurso se entenderá desestimado si transcurre un mes desde su interposición, sin que se notificara la resolución. O bien directamente,

Recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar del día de su publicación, o seis meses en el caso de desestimación por silencio administrativo; todo ello sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente.

Zarauz, a 17 de marzo de 2015.—El alcalde. (2552)